



EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO LEHEN PLANA

PRIMER PLAN DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA

2005eko urriaren 20ko Ezohiko Aberri Batzarrean onartua

Aprobado en la Asamblea Nacional Extraordinaria celebrada el día 20 de octubre de 2005

A U R K I B I D E A

	<i>Orr.</i>
I.- Sarrera.....	1
II.- Aurrekariak.....	4
III.- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren Irizpide Orokorrak.....	6
IV.- Plana Garatzeko Oinarriak	11
V.- Jarduketa-Eremuak, Epealdia eta Helburuak.....	13
VI.- Baliabideak.....	24
VII.- Jarraipena eta Ebaluazioa.....	24
VIII.- Xedapen Iragankorra.....	25
AZKEN GOGOETA.....	26
ERANSKINA. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako biztanle-kopurua (2001eko zentsua) euskararen jakitearen arabera.....	28

Í N D I C E

	<i>Pág.</i>
I.- Introducción	1
II.- Antecedentes.....	4
III.- Criterios Generales del Plan de Normalización del Uso del Euskera.....	6
IV.- Bases para el Desarrollo del Plan	11
V.- Ámbitos de Actuación, Periodo Temporal y Objetivos	13
VI.- Recursos	24
VII.- Seguimiento y evaluación.....	24
VIII.- Disposición Transitoria	25
REFLEXIÓN FINAL	26
ANEXO. Relación cuantitativa de la población de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra (Censo de 2001), según su conocimiento del euskera.....	28

I.- SARRERA

Euskara, Euskadiren hizkuntza propio bakarra, oro har, gutxienena da eta gutxitua dago gure herrian. Nagusi den gizarte-araua hizkuntza nagusiaren, gaztelaniaren edo frantsesaren, aldekoa da, baita euskal hiztunen portzentaje handia duten udalerrietan ere.

Aitzitik, euskararen egoera eta, batik bat, azken urteotan izan duen bilakaera ikusita, ukaezina da gure aberri hizkuntzak iritsi dituen prestigioak eta bizitasunak erabat eta zeharo gainditu dituztela duela 25 urte genituen itxaropenik baikorrenak. Honako hauek dira gure hizkuntzak izan duen bilakaera soziolinguistiko izugarria ulertzeko gakoak: Gernikako Autonomia Estatutua, euskara Euskal Herriaren hizkuntza propio legez eta Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza ofizial gisa aintzatestea bideratu duena, eta euskal herritar gehienok geure hizkuntza berreskuratzeko egin dugun apustua. Tamalez, Nafarroan indarrean dagoen zonifikazio-legearekin, nahiz eta nafarren borondate maioritarioa euskararen aldekoa izan, ez da beste horrenbeste lortu izan. Iparraldean, berriz, euskararen aldeko inongo babesik izan gabe, egoera oso ezkorra da.

Euskara, gehienbat, euskal herritar gehien-gehienok gorde nahi dugun kultura-ondarea ez ezik, Euskadiko milaka hiritarrek elkarrekin komunikatzeko erabiltzen duten tresna bizia ere bada.

Euskara batzeko, arautzeko eta modernizatzeko prozesua egokia eta zuzena da, eta gure hizkuntzaren hedapen demografiko, geografiko eta funtzionala oso nabarmena izaten ari da:

I.- INTRODUCCIÓN

El euskera, única lengua propia de Euskadi, es minoritaria y está minorizada en el conjunto de nuestro pueblo: la norma social imperante es favorable a la lengua dominante, castellano o francés, incluso en aquellos municipios con mayor porcentaje de personas vascófonas.

Sin embargo, vista la situación del euskera y, sobre todo, su evolución a lo largo de los últimos años, es incuestionable que el prestigio y la vitalidad alcanzados por nuestra lengua nacional han superado con creces las mejores expectativas de hace 25 años. El Estatuto de Autonomía de Gernika, con el reconocimiento del euskera como lengua propia de Euskal Herria y oficial en la Comunidad Autónoma de Euskadi, junto con la apuesta de la mayoría de la ciudadanía vasca por su recuperación, son las claves para comprender su extraordinaria evolución sociolingüística. Desafortunadamente, la situación en Navarra, con la ley de zonificación en vigor, no es favorable al euskera aún cuando la voluntad mayoritaria de los navarros así lo reclama. En Iparralde, sin reconocimiento alguno para el euskera, la situación es muy negativa.

El euskera, además de patrimonio cultural que la inmensa mayoría de los vascos queremos preservar, es, sobre todo, un instrumento vivo de comunicación de miles de ciudadanos y ciudadanas de Euskadi.

El proceso de unificación, normativización y modernización del euskera está siendo satisfactorio, y su expansión demográfica, geográfica y funcional, muy considerable:

- 16 urtetik 24 urte arteko gazteen artean, biztanle elebidunak %48.48koak dira EAEn, eta biztanle elebakarrak %31.35 dira; Nafarroan, berriz, biztanleria elebiduna %15.80koa da, elebakarrak %77.44koak direlarik, eta, azkenik, Iparraldean, biztanle elebidunak, adin-tarte honetan, %12.19koak dira, elebakarrak %68.01ekoak direlarik;
- gaur egun, gure hizkuntza ez da Euskadiko baserri eta arrantza giroko hizkuntza soilik, sendotzen ari delako, eta gero eta indar handiagoarekin gainera. Are, euskara duela ehunka urte galdu zuten hiri eta landalur eremuetan ere berreskurapena nabaritzen da;
- euskara gizartearen bizitzaren ia eremu guztietan erabiltzen da (komunikabideak, hezkuntza, administrazioa, aisia, kirola, merkataritza, industria...), nahiz eta gure hizkuntzaren presentzia gutxienena izan eremu horietan guztietan.

Bereziki azpimarratzeko modukoa da Euskal Autonomia Erkidegoko esperientzia. Gure hizkuntzaren aldeko apustu sozial, politiko eta instituzional sendoaren bidez, euskararen galeraren noranzkoa alderantzizkatzea lortu du.

Espero zitekeen legez, lortu diren aurrerapenek ikuspegi, beharrian eta erronka berriak ekarri dizkigute. Erronkarik garrantzikoena azken urteotako aldaketa soziolinguistiko sakonaren ondorioz gertatu dena da: gaur egun, euskaldun guztiak (gutxienik) elebidunak dira, eta horietarik %50ek baino gehiagok gaztelania edo frantsesa dute lehen hizkuntza. Egoera hori ez da egundaino inoiz gertatu; horrez gain, euskaldunik gehien-gehienak euskara gutxienena den eremuetan bizi dira. Horrek guztiak, logikoa denez,

- la población bilingüe supone el 48.48% entre los jóvenes de 16 a 24 años en la CAPV, siendo la monolingüe del 31.35%; en Navarra la población bilingüe supone el 15.80%, mientras que la monolingüe es del 77.44%, y en Iparralde la población bilingüe, en esta franja de edad, es del 12.19%, sobre el 68,01% de la monolingüe;
- nuestra lengua nacional ha dejado de ser lengua exclusiva de las zonas rurales y pesqueras de Euskadi para consolidarse, cada vez con más fuerza, incluso en aquellos espacios urbanos y rurales en los que se había perdido cientos de años atrás;
- el euskera se utiliza en casi todos los ámbitos de la vida social (medios de comunicación, educación, administración, ocio, deporte, comercio, industria...) aun cuando su presencia sigue siendo minoritaria en todos ellos.

Es especialmente reseñable la experiencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi que, con una decidida apuesta social, política e institucional en favor de nuestra lengua, ha logrado invertir su pérdida.

Tal como era de esperar, los avances logrados nos han traído nuevas perspectivas, necesidades y retos. El más importante es el que deriva del profundo cambio sociolingüístico de los últimos años: actualmente, todos los euskaldunes son (al menos) bilingües y más del 50% de ellos tiene como primera lengua el castellano o el francés. Esta situación, desconocida hasta ahora, unida al hecho de que la inmensa mayoría de euskaldunes viva en contextos en los que el euskera es minoritario, provoca una natural

gero eta ardura eta kezka handiagoak sortzen ditu hizkuntzaren gizarte-erabileraz eta erabiltzen den euskararen kalitateaz. Ikuspegi honetatik, ez dira neurri berekoak izan euskara gehiagok jakitea eta euskararen erabilera.

EAJK, sortu zen egunetik, argi izan du gure herriaren askatasuna lortzeko borroka ezin gauza daitekeela, baldin eta euskararen aldeko ahaleginak etengabe egiten ez baditugu; hortaz, gure Alderdiak euskararen erabilera normalizatzearen aldeko konpromisoa berretsi du, Alderdi modura ahalegin berri sendoak egiteko eskatzen digun une historikoan gaudela sinetsita gaudelako.

Euzko Alderdi Jeltzalearentzako Euskararen Erabilera Normalizatzeako Plana behar den moduan ezkondu behar da Alderdiaren barne arautegiarekin. Lotura horretaz jabetzeko, gure Aberri Estatutuetara jotzea baino ez dugu, zeren oinarri nagusietan argi eta garbi honakoa adierazten baitute: *"Euzko Alderdi Jeltzaleak euskara dauka euskal aberri hizkuntzatzat, eta haren normalizaziorako behar den ardura nazionala aintzat hartzea eskatzen du, euskal hiritargoaren eta alderdikideen hizkuntz eskubideak babestuak eta bultzatuak izan daitezen, zeinen zerbitzura egongo diren Euzko Alderdi Jeltzaleko kargu publiko eta alderdi barruko ardura dutenak"*.

Utzi ezineko abiaburu hori oinarritzat harturik, euskararen jakite eta erabilera eremu guzti-guztietan aldeztu eta eragin behar dugu, eta are eremu politikoan, ezen, historiari begiratzen badiogu, aurreko erregimen eta gobernuen arrazoi politiko huts-hutsek eragin zuten euskara errotik ezabatzeko erabakiak hartzea.

Gure Aberri Estatutuetan (13.9 artikuluan) jasotzen denez, alderdikide orok nahitaez egin behar du... *"Euskara, hitzez eta*

y creciente preocupación sobre los progresos en el uso social y en la calidad de nuestra lengua. En este sentido, el cada vez mayor conocimiento del euskera no ha tenido como consecuencia un incremento de su utilización en la misma medida.

EAJ-PNV, que desde sus orígenes ha tenido presente que la lucha por la libertad de nuestro pueblo no es posible sin un esfuerzo constante a favor del euskera, reafirma su compromiso con la normalización de su uso, desde la convicción de que nos encontramos en un momento histórico que nos exige nuevos y renovados esfuerzos como Partido.

Un Plan de Normalización del Uso del Euskera para Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco precisa del correspondiente anclaje en nuestra normativa interna. Y apelamos a nuestros Estatutos Nacionales, que ya en sus Principios Generales expresan con rotundidad que *"Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco considera al euskera como lengua nacional vasca y demanda que su normalización sea responsabilidad nacional, asentada en el compromiso de proteger e impulsar los derechos lingüísticos de la ciudadanía vasca y de la afiliación a las que han de servir las personas con responsabilidades públicas e internas de EAJ-PNV"*.

Sobre la base de este principio irrenunciable, hemos de defender y activar el conocimiento y el uso del euskera en todos los ámbitos, máxime en el político, ya que han sido visceralmente políticas las razones por las que el euskera fue objeto de aniquilación por anteriores regímenes y gobiernos.

Además, tal como afirman nuestros Estatutos Nacionales (artículo 13.9) es obligación insoslayable de todo alderdikide... *"esforzarse*

idatziz, ikasten ahalegintzea. Euskara erabili eta Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan zein kanpoan euskara zabal dadin laguntzea".

II.- AURREKARIAK

1999ko irailaren 17a.- Aberri Batzarrak onetsi zuen EAJko barruko kargudunei, kargudun publikoei eta bestelako langileei euskara jakin eta erabiltzeko egin dien eskakizunari buruzko Arautegia, 1995ean onetsitako Aberri Estatutuen aldi baterako 3. erabakia betetze aldera. Estatutu horietan, honako hau zegoen ezarria: *"Euzkadi Buru Batzarrak, Aberri Estatutu hauek berresten diren egunetik aurrera zenbatu beharreko urtebeteko epealdian, barruko karguek, kargu publikoek eta herrialde buru batzarrek kontratatzen dituzten langileek euskara jakin eta erabiltzeko eskakizunari dagokion plana egingo du eta Aberri Batzarraren onespean jarriko du".*¹

1999-2003ko epealdia.- Aldi horretan, Arautegi hori garatuz joan ziren EAJren uri buru batzarrak, herrialde buru batzarrak eta Euzkadi Buru Batzarra, geroago aplikatze aldera:

- **Aberri eta herrialde mailako kargudunak:** onetsi eskakizunak arautegian bertan jasotzen dira.

en el aprendizaje y dominio, oral y escrito, del euskera, usarlo y contribuir a su utilización dentro y fuera de EAJ-PNV".

II.- ANTECEDENTES

17 de septiembre de 1999.- Aprobación de la Normativa sobre la exigencia del conocimiento y uso del euskera a cargos internos, públicos y personal de EAJ-PNV por la Asamblea Nacional, con objeto de dar cumplimiento a la Disposición Transitoria 3ª de los Estatutos Nacionales aprobados en 1995, los cuales establecían que *"El Euzkadi Buru Batzar elaborará y someterá a la aprobación de la Asamblea Nacional, en el plazo de un año a partir de la ratificación de los presentes Estatutos Nacionales, un plan de exigencia del conocimiento y uso del euskera requerido a los cargos internos, cargos públicos y trabajadores contratados por las distintas ejecutivas"*.²

Periodo 1999-2003.- Tiempo de desarrollo de la citada Normativa por parte de las ejecutivas municipales, regionales y nacional de EAJ-PNV, para su posterior aplicación:

- **Cargos de nivel nacional y regional:** las exigencias acordadas figuran en la propia normativa.

¹ 1999ko Arautegian jasotzen diren konpromisoak zehatz-mehatz azaltzen diren testua EBBren Idazkaritzan eska daiteke.

² El texto en el que se explican con detalle los compromisos adoptados en la Normativa de 1999 puede solicitarse a la Secretaría del EBB.

- **Uri mailako kargudunak:** sei hilabeteko epearen barruan, uri batzarrek, uri buru batzar bakoitzak proposaturik, euren plana egin behar izan zuten (gutxienez bakoitzari zegokion eremu geografikoaren antzeko eskakizun-portzentajearekin, eta 5 urteko epean...).
- **EAJko langileria:** sei hilabeteko epearen barruan, buru batzarrek euren plana egiteko konpromisoa hartu zuten, eta plan horren barruan EAJk kontrataturiko enpresetako langileak ere sartzen ziren.

2004ko urtarrilaren 17a eta 18a.- EAJren IV. Batzar Orokorrean Aberri Estatutuak berretsi egin ziren; euskarari dagokionez, honako hau dago ezarrita:

- **3. erabaki osagarria:** *“Euzkadi Buru Batzarrak egin beharreko Euskararen Normalizaziorako Egitasmoak, bestiak beste aurreikusiko ditu kasuan kasuko barne karguak edo kargu publikoak betetzeko eska daitekeen euskararen ezagutza mailaren gaineko ebazpenak. Ebazpen hauek, indarrean dauden Estatutu hauei ez diete kalterik egingo eta modu berean Euzko Alderdi Jeltzalearen alderdikideek, aukeratuak izateko duten eskubidea bera ere mugatuko dute. Esandako Egitasmoa Aberri Batzarraren aurrera eramango da, gehien jota urte beteko epean eta Aberri Estatutuek ezartzen dutenaren arabera, alderdikideei galdetu ostean.”*
- **Aldi baterako 3. erabakia:** *“Aberri Estatutu hauetako Aldi Baterako Hirugarren erabakian aipatzen den “Euskararen*

- **Cargos de nivel municipal:** en el plazo de seis meses, las respectivas asambleas municipales, a propuesta de cada ejecutiva municipal, tuvieron que elaborar su propio plan (con un porcentaje de exigencia como mínimo similar al del ámbito geográfico correspondiente, y en un plazo de 5 años...).
- **Personal de EAJ-PNV:** en el plazo de seis meses, las correspondientes ejecutivas se comprometían a elaborar su correspondiente plan, incluyendo en él al personal de las empresas contratadas.

17 y 18 de enero de 2004.- Ratificación de los Estatutos Nacionales en la IV Asamblea General de EAJ-PNV, que, en relación con el euskera, establecen lo siguiente:

- **Disposición adicional 3ª:** *“El Plan de Normalización del Uso del Euskera elaborado por el Euzkadi Buru Batzar contemplará, entre otras, las disposiciones relativas al nivel del conocimiento de nuestra lengua exigible en cada caso para ostentar los cargos internos o públicos en los que dicha exigencia se considere necesaria. Estas disposiciones se entenderán establecidas sin perjuicio de lo previsto expresamente en los presentes Estatutos y delimitarán del mismo modo el alcance del derecho a ser elegidos de los alderdikides de EAJ-PNV. Dicho Plan será sometido a la aprobación de la Asamblea Nacional, en el plazo máximo de un año, previa consulta a las bases en los términos previstos a tal efecto en los presentes Estatutos Nacionales.”*
- **Disposición transitoria 3ª:** *“Hasta la aprobación del Plan de Normalización del Uso del Euskera al que se refiere la*

Erabilera Arrunt egiteko Egitasmoa" onartu arte, 1999ko irailaren 17ko Aberri Batzarrak onartutako "Euzko Alderdi Jeltzalearen kargudunei, kargu publikodunei eta langileei euskara ezagutu eta erabiltzeko eskakizunari buruzko araudia" izenburuko egitasmoak ezarritakoa beteko da."

2005eko urtarrila.- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana egitea, EAJko alderdikideen kontsultapean jartze aldera.

III.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN IRIZPIDE OROKORRAK

1) Norberaren hizkuntza aintzatestearen abiaburua.-

Euskara da gure aberri hizkuntza. Euskal Herriak gorde egin du, ondorengoetaratu egin du, eta modu argi eta demokratikoan bere hizkuntza berreskuratzearen eta normalizatzearen aldeko apustu sendoa egin du. Euzko Alderdi Jeltzaleak euskararekin duen konpromisoa sakontzen jarraitu behar du, egungo abagune historikoak eskatzen dizkigun urratsak emanez; izan ere, horrek honakoa eskatzen digu: oraindik ere gutxienena eta gutxitua den gure hizkuntza honen aldeko ekintza positiboak abian jartzea ahalegin berrituak egiteko.

Disposición Adicional 3ª de los presentes Estatutos Nacionales se atenderá a lo dispuesto en la Normativa sobre la exigencia del conocimiento y uso del euskera a cargos internos, públicos y trabajadores de EAJ-PNV aprobada por la Asamblea Nacional el 17 de septiembre de 1999."

Enero 2005.- Elaboración del Plan de Normalización del Uso del Euskera, para que se someta a consulta a las bases de EAJ-PNV.

III.- CRITERIOS GENERALES DEL PLAN DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA

1) Principio de reconocimiento a la lengua propia.-

El euskera es nuestra lengua nacional. El pueblo vasco lo ha guardado, lo ha transmitido y ha apostado abierta y democráticamente a favor de su recuperación y normalización. Euzko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco ha de continuar profundizando en el compromiso con el euskera, dando pasos acordes con el momento histórico actual que exige de nosotros un esfuerzo renovado en la acción positiva por la lengua propia, que aún sigue siendo minoritaria y minorizada.

1977an Iruñean egin genuen Batzarra gogoratzen dugu, zeinetan honako konpromiso zehatz hau hartu baitzen: *“euskara Euzkadiko aberri hizkuntza legez sustatzea, funtzio publikoak egikaritzeko gertuko gizarte-balorazioa duen kultura-tresna gisa”*. Esparru honi dagokionez, honela baloratzen zen Alderdiaren zeregina: *“Euzko Alderdi Jeltzaleak XX. gizaldiaren lehenengo herenean euskararen defentsan egin duen lan garrantzitsua errebindikatzen du; izan ere, gure Alderdia nagusi izan zen zeregin horretan eta ia bakarrik jardun zuen, eskuineko eta ezkerreko alderdi politikoen arduragabekeriaren eta etsaitasunaren aurrean. Logikoa denez, jarrera horrek ondokoa islatzen zuen garbi asko: Euzkotarren aberria Euzkadi da, eta euskara da aberriaren hizkuntza”*.

2) Alderdikideen eta, oro har, euskal hiritarren hizkuntza-eskubideak bermatzearen abiaburua.-

EAJk ardura berezi hau du: alderdikideen eta, oro har, euskal hiritarren hizkuntza-eskubideak sustatu eta bermatzea, gure Aberri Estatutuekin bat etorritik eta EAJ-PNVren tradizio historikoaren arabera, gure Alderdiaren ekimenez 1982. urtean Eusko Legebiltzarrean onetsi zenaren arabera. Horretara, bada, EAJ-PNVk zainduko du funtsezko hizkuntz eskubideak aintzatesteko bere alderdikide guztiei, bai eta gainerako hiritarrei ere, eta, horiek guztiek beren beregi talde-eremuan dihardutenean.

Hizkuntza-eskubideen berme hori ahularekiko ekintza positiboa bideratuz baino ezin daiteke gauzatu, hau da, gutxiena den hizkuntzaren eledunari laguntza berezia emanaz, ezberdintasunezko egoeretan –eta hain zuzen ere egoera

Recordamos la Asamblea de Iruña de 1977 en la que se adoptó el compromiso explícito de *“promover el euskera como lengua nacional de Euzkadi, vehículo de cultura con carácter de valoración social inmediata para el desempeño de funciones públicas”*. Así valoraba la misión del Partido en este ámbito: *“El Partido Nacionalista Vasco reivindica el papel predominante y casi exclusivo que frente a la indiferencia o la hostilidad de organizaciones de la derecha y de la izquierda, desempeñó durante el primer tercio del siglo en la defensa del euskera, actitud que respondía lógicamente a su afirmación de que Euzkadi es la patria de los vascos, y el euskera la lengua de la patria”*.

2) Principio de garantía de los derechos lingüísticos de la afiliación y de la ciudadanía vasca en general.-

Es especial responsabilidad de EAJ-PNV promover y garantizar los derechos lingüísticos de la afiliación y de la ciudadanía vasca en general, en consonancia con nuestros Estatutos Nacionales y con la tradición histórica de EAJ-PNV. Así, pues, EAJ-PNV velará por el reconocimiento de los derechos lingüísticos fundamentales para su afiliación, así como para el resto de la ciudadanía, en especial, en el ejercicio de estos derechos en el ámbito colectivo.

Esta garantía de derechos lingüísticos sólo es posible desde la acción positiva hacia el más débil, es decir, al hablante de la lengua minoritaria, sin olvidar que en situaciones de desigualdad –como objetivamente es el caso– la norma debe

horrelakoa da— arauak babestu behar duela, eta araurik ezak ezberdintasuna eta zuzengabekeria areagotzen dituela ahaztu gabe.

3) Abiaburu demokratikoa.-

Hizkuntza-eskubideen babesa eta euskararen erabilera normalizatzeko bultzada alderdikiderik gehienek onetsi beharreko plangintzaren bidez abiarazi behar dira: hain justu ere, gehienon borondate horrek emango dio benetako balioa Normalizazio Planari, hori izango baita Plan hori garatzeko tresnarik eraginkorra eta hura betetzeko bermerik onena.

4) Euzko Alderdi Jeltzaleko kargudun publikoen eta barruko kargudunen partaidetza aktiboa.-

Euskararen normalizazioa gauzatze aldera, zeharo garrantzizkoa da Euzko Alderdi Jeltzalean kargu publikoak eta barruko karguak dituzten alderdikideen borondatea, bai eta beraien parte hartzeko konpromisoa hartzea. Aberri Estatutuen Oinarri Nagusietan eta jarraian azaltzen diren artikuluetan xedaturik dagoenez:

- **4. oinarria:** *“Euzko Alderdi Jeltzaleak euskara dauka euskal aberri hizkuntzat, eta haren normalizaziorako behar den ardura nazionala aintzat hartzea eskatzen du, euskal hiritargoaren eta alderdikideen hizkuntz eskubideak babestuak eta bultzatuak izan daitezen, zeinen zerbitzura egongo diren Euzko Alderdi Jeltzaleko kargu publiko eta alderdi barruko ardura dutenak.*

proteger y la ausencia de norma profundiza en la desigualdad y en la injusticia.

3) Principio democrático.-

La protección de los derechos lingüísticos y el impulso a la normalización del uso del euskera han de hacerse a través de una planificación que sea asumida por la mayoría de la afiliación: es, precisamente, esta voluntad mayoritaria la que dará verdadero valor a este Plan de Normalización, constituyéndose en la herramienta más eficaz para su desarrollo y en la mejor garantía de su cumplimiento.

4) La participación activa de las personas de EAJ-PNV con responsabilidades públicas e internas.-

La normalización del euskera se ha de asentar, muy especialmente, en la voluntad y en el compromiso participativo de los alderdikides, especialmente de aquellos que ostentan responsabilidades públicas e internas. Tal y como disponen los Estatutos Nacionales en sus Principios Generales y en los artículos que se citan a continuación:

- **4º principio:** *“Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco considera al euskera como lengua nacional vasca y demanda que su normalización sea responsabilidad nacional, asentada en el compromiso de proteger e impulsar los derechos lingüísticos de la ciudadanía vasca y de la afiliación a las que han de servir las personas con responsabilidades públicas e*

Euzko Alderdi Jeltzaleak bere egiten ditu hizkuntz normalizazio eraginkorraren oinarriak: euskaldunen hizkuntza propioa, gutxiengoduna eta gutxitua den euskararen aldeko ekintza eta gehikortasuna, jardunbide eraginkorrerako beharrezkoa dena”.

- **5. oinarria:** “Euzko Alderdi Jeltzaleak honako helburu hauek ditu, besteak beste:
 - a) Egitasmo politiko jeltzalea gauzatzeko tresna izatea.
(...)
 - e) Botere politikora heltzea, batez ere, erakundeen bitartez, hauek izanik bere egitasmoa egia bihurtzeko bidea.
(...)
 - g) Arteztarau politikoak markatu, herri-erakundeetako bere ordezkariak bideratu, lagundu eta zaindu.”

- **“1. artikulua.-** Euzko Alderdi Jeltzalearen hizkuntza euskara da. Horrez gain beste hizkuntza batzuk ere erabili ahal izango dira, giza, tokian tokiko eta gobernu hobeago baten beharrianak zaintzeko.”

- **“13. artikulua.-** Alderdikidearen oinarrizko eginbeharrak honako hauexek dira:
 - (...)
 - 9) Euskara, hitzez eta idatziz, ikasten ahalegintzea. Euskara erabili eta Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan zein kanpoan euskara zabal dadin laguntzea.”

internas de EAJ-PNV.

Euzko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco hace suyos los principios inspiradores de la normalización lingüística eficaz: la acción positiva a favor del euskera, lengua propia de los vascos, minoritaria y minorizada, y la progresividad, necesaria para la actuación eficaz”.

- **5º principio:** “Euzko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco tiene como fines:
 - a) Ser instrumento de realización del proyecto político nacionalista.
(...)
 - e) Acceder al poder político, especialmente a través de su presencia en las instituciones, como medio para hacer realidad su proyecto.
(...)
 - g) Marcar las directrices políticas, orientar, apoyar y controlar a sus representantes en las instituciones públicas.”

- **“Art. 1.-** El idioma de Euzko Alderdi Jeltzalea–Partido Nacionalista Vasco es el euskera. Podrán ser utilizados, además, otros idiomas, para atender las necesidades sociales, las del lugar y las de un mejor gobierno.”

- **“Art. 13.-** Son obligaciones fundamentales del afiliado y afiliada:
 - (...)
 - 9) Esforzarse en el aprendizaje y dominio, oral y escrito, del euskera, usarlo y contribuir a su utilización dentro y fuera de EAJ-PNV.”

Halaber, Euzko Alderdi Jeltzaleak nahitaez eguneratu eta areagotu behar du gure aberri hizkuntza arlo guzti-guztietan bizirik gordetzeko apustu sendoa. Arlo honi dagokionez, IV. Batzar Orokorrean onetsitako Txosten Politikoan honako helburu zehatz hauek jasotzen dira:

- *“Nafarroa osoan eta Iparralden euskararen ofizialtasuna lortzea.”*
- *“Geure hizkuntzaren presentziarik ahuleneko Iparraldeko eta Nafarroako zonetan euskara irakastearen aldeko ekimenak bultzatzea, eta lurralde horietako administrazioen finantziario nahikorik ez duten ekimenak ere sustatzea.”*
- *“Euskara belaunaldi batetik bestera igarotzen dela bermatzea, familiaren barruko transmisioaren garrantzi handia azpimarratuz.”*
- *“Euskarak eguneroko bizitzan erabiltzeko hizkuntzatzat duen ospea eta balio soziala handitzea.”*
- *“Euskarazko produktuen eta zerbitzuen eskaintza arlo guztietan zabaltzea, eta horien eskaria sustatzea, lortutako ezagupen- eta erabilera-mailak apurka-apurka finkatzen joateko eta, horrenbestez, hizkuntzaren kalitatea hobetzeko.”*
- *“Erakunde publikoen eta pribatuen barruan euskararen erabilera normalizatzeko planak sustatzea, horien jarduketa belaunaldi berrien hizkuntza beharrianetara egokitzeko.”*

Asimismo, es obligación de EAJ-PNV actualizar e intensificar la apuesta por mantener viva y plenamente funcional nuestra lengua nacional. La Ponencia Política aprobada en la IV Asamblea General dispone, en esta materia, los objetivos específicos siguientes:

- *“Lograr la oficialidad del euskera en toda Nafarroa y en Iparralde.”*
- *“Apoyar las iniciativas a favor de la enseñanza del euskera en las zonas de Iparralde y de Nafarroa en las que más débil es la presencia de nuestra lengua y en las que aquellas iniciativas no cuentan con la financiación suficiente de las respectivas Administraciones de esos territorios.”*
- *“Garantizar la transmisión intergeneracional del euskera, subrayando la especial importancia de la transmisión familiar.”*
- *“Incrementar el prestigio y el valor social del euskera como lengua de uso en la vida cotidiana.”*
- *“Ampliar la oferta de productos y servicios en euskera en todos los ámbitos, y potenciar la demanda de los mismos para ir consolidando progresivamente los niveles de conocimiento y uso alcanzados y, por ende, mejorar la calidad de la lengua.”*
- *“Impulsar los planes de normalización del uso del euskera de las organizaciones públicas y privadas para que adecuen progresivamente su actuación a las necesidades lingüísticas de las nuevas generaciones.”*

- *“Geure Alderdiaren barruko bizitzan ere hizkuntza-normalizazioarekiko konpromiso handiagoa hartzea, bai barruan eta bai geure jarduketa politikoaren eremu publikoetan.”*

5) Euzko Alderdi Jeltzalearen eta herri erakundeen jardunaren osagarritasuna.-

Euskararen erabilera normalizatzeko bidean abiatzeko atazak norberaren konpromisoa eta gizartearen ekimena behar ditu. Herri administrazioen jarduketa-eremuek helburu eta muga zehatzak dituzte: oinarrizko arau demokratikoak babestea, ekimen pribatuaren eta sozialaren eskuetan uztea beraiek burutu dezaketen oro, eta horiekin lankide jardutea, osagarritasun-irizpidea kontuan hartuz. Pentsamolde politiko hori oinarri hartuz, Euzko Alderdi Jeltzaleari gizarte-eragile modura jardutea dagokio, hau da, Alderdiaren beraren antolaketaren barruan.

IV.- PLANA GARATZEKO OINARRIAK

- Euzko Alderdi Jeltzalearen barruko eta kanpoko eremuak hartzen ditu: barne antolaketa eta jarduketa publikoa.

- *“Profundizar en el compromiso con la normalización lingüística en la vida de nuestro propio Partido, tanto internamente como en los ámbitos públicos de nuestra actuación política.”*

5) La complementariedad de la acción de EAJ-PNV con la acción de las instituciones públicas.-

La tarea de caminar hacia la normalización del uso del euskera precisa del compromiso individual y de la iniciativa social. Los ámbitos de actuación de las administraciones públicas tienen objetivos y límites claros: preservar las reglas democráticas básicas, dejar en manos de la iniciativa privada y social lo que éstas puedan hacer, y actuar, en colaboración con aquellas, según el criterio de la complementariedad. Desde esa concepción política, a EAJ-PNV le corresponde actuar también como agente social, es decir, dentro de la propia Organización.

IV.- BASES PARA EL DESARROLLO DEL PLAN

- Abarca los ámbitos interno y externo de EAJ-PNV: organización interna y actuación pública.

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Bi unetan du eragina: <ul style="list-style-type: none"> – Hautagai-zerrendak egiten direnean. – Kargua egikaritzean.
 • Euskararen jakitea eta erabilera, eta euskararekiko jarrera ditu jardungai: <ul style="list-style-type: none"> – Unitate, organo eta erakunde guztien arteko harremanetan euskararen erabilera lehenetsiz. – Euskarazko komunikazioan bete behar diren baldintza bereziak kontuan hartuz: a) eginkizun-normalkuntza edo euskaraz aritzeko erraztasun nahikoa izatea; b) euskaldun kopuru nahikoa izatea, eta c) euskaldun guztion hizkuntz eskabideak.
 • Euzko Alderdi Jeltzaleak aurrera errotan dituen hizkuntza-politika publikoak modu eraginkorrean garatzen laguntzen du; politikok, besteak beste, hauek erabiltzen dituzte: <ul style="list-style-type: none"> – Euskararen erabilera normalizatzeko planak, euskal administrazio publikoetan indarrean daudenak. – Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN).
 • Modu mailakatuan jarduten du: kontuan hartzen ditu Euskadiko lurraldean diren egoera soziolinguistiko ezberdinak. | <ul style="list-style-type: none"> • Incide en dos momentos: <ul style="list-style-type: none"> – En la confección de candidaturas. – En el ejercicio del cargo.
 • Actúa en el conocimiento, en el uso y en la actitud hacia el euskera: <ul style="list-style-type: none"> – Priorizando el uso del euskera en las relaciones entre diferentes unidades u órganos y organizaciones. – Teniendo en cuenta las condiciones específicas que se han de cumplir para la comunicación en euskera: a) normalización funcional o facilidad suficiente para utilizar el euskera; b) densidad suficiente de euskaldunes, y c) derechos lingüísticos de todas las personas euskaldunes.
 • Contribuye al desarrollo efectivo de las políticas lingüísticas públicas lideradas por EAJ-PNV, materializadas, entre otros, en: <ul style="list-style-type: none"> – los planes de normalización del uso del euskera en vigor en las administraciones públicas vascas; – el Plan General de Promoción del Uso del Euskera (EBPN).
 • Actúa de forma progresiva: toma en consideración las diferentes situaciones sociolingüísticas dentro del territorio de Euskadi. |
|---|---|

V.- JARDUKETA-EREMUAK, EPEALDIA ETA HELBURUAK

1. Planaren ezarpen-eremuak.-

Ondoko hauek dira:

- a) Euzko Alderdi Jeltzalearen barruko kargudunak.
- b) Euzko Alderdi Jeltzalearen kargudun publikoak.
- c) Euzko Alderdi Jeltzalearen alderdikideak.

2. Planaren iraunaldia.-

Plana 4 urteko epealdietan garatuko da. Plangintzarako lehen epealdia 2009ko abenduan amaituko da.

3. Helburuak.-

3.1. Hasierako adigaiak.

- “euskalduna”: euskara arazorik gabe ulertzen duen pertsona, jeltzale izateak dakartzan barne edo kanpoko eginkizunak behar bezala eta naturaltasunez burutzeko moduan hitz egiten duena.
- “ia-euskalduna”: euskara ulertu bai, baina hitz egiteko gai ez den pertsona.

V.- ÁMBITOS DE ACTUACIÓN, PERIODO TEMPORAL Y OBJETIVOS

1. Ámbitos de aplicación del Plan.-

Son los siguientes:

- a) los cargos internos de EAJ-PNV;
- b) los cargos públicos de EAJ-PNV;
- c) la afiliación de EAJ-PNV.

2. Período temporal del Plan.-

El plan se desarrollará en períodos de 4 años. El primer período de planificación concluirá en diciembre de 2009.

3. Objetivos.-

3.1. Conceptos previos.

- “euskaldun”: persona que entiende euskera sin dificultad y lo habla con la naturalidad suficiente como para desarrollar las funciones internas o externas derivadas de su pertenencia a EAJ-PNV;
- “cuasi-euskaldun”: persona que entiende euskera, pero no lo habla;

- Eremu bateko “euskaldunen indizea”:
 - Barne edo kanpoko organoko edo hautagai-zerrendako kide guztiei dagokienez euskaldunak izan behar duten kideen portzentajeari dagokion indizea. Indize hori indarrean dagoen zentsuko euskaldunen datuen bidez ateratzen da (egungo datuak agiri honi batu zaizkio, 1. eranskinean), honako formula honen bitartez:

$$\frac{euskaldunak + [ia - euskaldunak / 2]}{Biztanleria osoa} \cdot 100$$

- “EBPN”: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna.
- “Ekintza positiboa”: “Hizkuntzarik ahulenaren aldeko ekintza positiboa”ri dagokion kontzeptua honako era honetara ulertzen da: ezin aplika dakieke hizkuntza-politika berdina egoera ezberdinetan diren hizkuntzei, baldin eta xedea hizkuntzen arteko desoreka arintzea bada. Hizkuntza-politika orok babes berezia eman behar dio hizkuntzarik ahulenari eta eremu murriztagoa duenari, halako moldez non egoera ezberdinei modu ezberdinean ekingo baitie. Ekintza positiboak babes aski handia du doktrina juridikoan.

- “índice de euskaldunes” de un ámbito:
 - el porcentaje de miembros que ha de ser euskaldun, respecto del total de miembros del órgano interno o público o de la candidatura. El índice se obtiene operando con los datos de euskaldunes que arroja el censo en vigor (cuya representación actual se anexa al presente documento –Anexo 1–), según la siguiente fórmula:

$$\frac{euskaldunes + [cuasi - euskaldunes / 2]}{Población total} \cdot 100$$

- “PGPE”: Plan General de Promoción del Uso del Euskara. El Plan General de Promoción del Uso del Euskera es un plan estratégico para continuar avanzando en la normalización lingüística; en definitiva, un instrumento básico que ayudará a centrar su actividad a los poderes públicos responsables de la política lingüística.
- “Acción positiva”: El concepto de “acción positiva a favor de la lengua más débil” se entiende de la siguiente manera: no se puede aplicar una misma política lingüística a lenguas que se encuentran en situaciones diferentes, si el objetivo consiste en contrarrestar el desequilibrio existente entre ellas. Toda política lingüística ha de ayudar a la lengua más débil y de ámbito más restringido, tratando de forma desigual las situaciones desiguales. La acción positiva está sobradamente protegida por la doctrina jurídica.

- “Erakunde elebiduna”: bere zereginak euskaraz zein gaztelaniaz edo frantsesez egiten dituen izakundea da. Kopuruari dagokionez, beharrezko baldintza da, erakunde bat elebiduntzat hartzeko, haren kideen %70, gutxienez, elebidunak izatea.

3.2.- Helburuen formulazioa.

Hemen ezarri diren helburuak gutxieneko helburu modura hartu behar dira.

⇒ **EUSKARAREN JAKITEA.-**

a) Oro har:

Egoki den hautagai-zerrendak, organoak edo erakundeak, **gutxienez, bertako eremu geografikoari dagokion euskaldun-indizearen berdina** izango den euskaldun-portzentajea izango du; indize horrek 2001eko Zentsuak Euskararen jakiteari buruz eman dituen datuak izango ditu oinarri. Indize hori hurrengo zentsuaren (2006koaren) datuak ofizialtzen diren momentuan egokitu beharko da, eta ondorik barruko kargudunak eta kargudun publikoak hautatzeko prozesuetan izango ditu ondoreak. Hautagai-zerrenda egitean, euskaldunen portzentajeak aplikatuko dira, hamar laguneko tarteka; eta lagun horien artean bete beharko da arautegi honetan ezarritako euskaldunen portzentajea.

- “Institución bilingüe”: es aquella que desarrolla sus funciones tanto en euskera, como en castellano o francés. Como referencia cuantitativa, se entiende que la condición necesaria para que una institución sea considerada bilingüe es que el 70% de sus miembros, como mínimo, sean bilingües.

3.2.- Formulación de objetivos.

Los objetivos que aquí se establecen se han de considerar siempre como mínimos.

⇒ **CONOCIMIENTO DEL EUSKERA.-**

a) En general:

La candidatura, el órgano o la institución correspondiente contará con un porcentaje de **euskaldunes, como mínimo, igual al índice de euskaldunes** del ámbito geográfico correspondiente, basado en los datos relativos al conocimiento del euskera que arroja el Censo del 2001. Este índice deberá ser adaptado en el momento en que se oficialicen los datos del siguiente censo (2006), y surtirá sus efectos en los procesos de elección de cargos internos y públicos que se desarrollen con posterioridad. A la hora de confeccionar las candidaturas, los porcentajes de euskaldunes se aplicarán en tramos de diez personas, dentro de los cuales deberá cumplirse el porcentaje de euskaldunes reglamentado.

b) Planaren aplikazio zehatzak:

Jarraian adieraziko direnek euskaldunak izan beharko dute:

- **KARGU PUBLIKOAK BETETZEKO EAJ-PNVren HAUTAGAIAK:**
 - Eusko Legebiltzar, Nafarroako Foru Parlamentu, Kongresu eta Senatu, eta Europako Parlamenturako zerrenda-buruak;
 - Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria, Nafarroako Foru Gobernuako presidentea, Eusko Legebiltzarraren lehendakaria, Nafarroako Parlamentuko presidentea, Diputatu Nagusiak, Batzar Nagusien lehendakariak, bai eta EAJ-PNVk mahai legegile horietan dituen ordezkariak, kasuan kasuko eremu geografiko bakoitzari ezarri beharreko portzentajearen arabera;
 - Hiriburuetako alkateak, Lan Harremanen Kontseiluaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren lehendakariak, Arartekoa eta EITBko zuzendari nagusia.
 - Gobernuen eta ganbera legegileen, eta hiriburuetako alkatetzetako bozeramaileak.
 - Era berean, lehentasuna emango zaie euskaraz dakitenei, karguak bete behar badira EAJ-PNVren koadro politikoen aitzindaritzaren menpeko erakunde autonomiadun publikoetan.

b) Aplicaciones específicas del Plan:

Habrán de ser euskaldunes los siguientes:

- **CANDIDATOS Y CANDIDATAS DE EAJ-PNV A CARGOS PÚBLICOS:**
 - Cabezas de lista al Parlamento Vasco, Parlamento Foral de Navarra, Congreso y Senado, y Parlamento Europeo;
 - Lehendakari del Gobierno Vasco, Presidente del Gobierno Foral de Navarra, Presidente de Parlamento Vasco, Presidente del Parlamento de Navarra, Diputados Generales, Presidentes de Juntas Generales, así como representantes de EAJ-PNV en estas mesas legislativas según el porcentaje aplicable a cada ámbito geográfico en cada caso;
 - Alcaldes de capitales, presidentes del Consejo de Relaciones Laborales y del Tribunal Vasco de Cuentas, Ararteko y director general de EITB.
 - Portavoces de gobiernos y cámaras legislativas, y de alcaldías de capitales.
 - Así mismo, se priorizará también a las personas con conocimiento de euskera para aquellos organismos autónomos públicos de gestión bajo liderazgo de cuadros políticos de EAJ-PNV.

- BARRUKO KARGUDUNAK:

- EBBren lehendakaria eta bost herrialde buru batzarren lehendakariak, bai eta Aberri Batzarraren Mahaiko lehendakaria eta lehendakariordea, Aberri Batzarreko lurraldeetako bozeramaileak, Aberri Epaitegiaren lehendakaria, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordearen lehendakaria ere, baita EBBko idazkaria.

- LURRALDE-EREMUAK. Ondokoak ere euskaldunak izango dira:

- %40ko edo hortik gorako indizea duten eremu geografikoetako zerrenda-buruak; kultura, gazteria, euskara eta hezkuntza arloen ardura duten pertsonak eta bai bozeramaileak ere euskaldunak izango dira, betiere, kargu horiek sartuko dira eremu geografiko bakoitzari dagokion ehunekoaren kopuruaren barruan;
- %55eko edo hortik gorako indizea duten eremu geografikoetan, erakundeen arloko arduradun nagusiak, erakundearekiko dedikazioa eskusiboa denean; kultura, gazteria, euskara eta hezkuntza arloen ardura duten pertsonak eta bai bozeramaileak ere euskaldunak izango dira, betiere, kargu horiek sartuko dira eremu geografiko bakoitzari dagokion ehunekoaren kopuruaren barruan;
- %70eko edo hortik gorako indizea duten eremu geografikoetako hautagai-zerrenda osoak.

- CARGOS INTERNOS:

- Presidentes del EBB y de las 5 ejecutivas territoriales, así como presidente y vicepresidente de la Mesa de la Asamblea Nacional, portavoces territoriales de la Asamblea Nacional, y presidentes del Tribunal Nacional y de la Comisión Nacional de Garantías y Control. El/la secretario/a del EBB también será euskaldun.

- ÁMBITOS GEOGRÁFICOS. Serán también euskaldunes:

- cabezas de lista de ámbitos geográficos con un índice igual o superior al 40%; las personas responsables de cultura, juventud, euskera y educación, así como los portavoces serán euskaldunes, computándose estos cargos dentro del porcentaje correspondiente a cada ámbito geográfico;
- los máximos responsables de área de las instituciones de ámbitos con un índice igual o superior al 55%, cuando la dedicación a la institución sea exclusiva; las personas responsables de cultura, juventud, euskera y educación, así como los portavoces serán euskaldunes, computándose estos cargos dentro del porcentaje correspondiente a cada ámbito geográfico;
- las candidaturas completas correspondientes a ámbitos de índice igual o superior al 70%.

%40tik beherako indizea duten eremu geografikoetarako:

- hautagai-zerrendetan, antolakunde edo erakundeetan, gutxienez, bozeramailea euskalduna izango da (gutxienez bi kide, %30-%40ko tartean);
- kultura, gazteria, euskara eta hezkuntza arloen ardura duten pertsonak (burukideak, zinegotziak, diputatuak...), eta bai bozeramaileak ere, euskaldunak izango dira.

- EUSKO JAURLARITZAN (*%50eko erreferentzia-indizea*), gutxienez, euskaldunak izango dira sailburuen %50. Era berean, sail bakoitzean %50 izango dira kargudun euskaldunak, eta portzentaje hori eremu orokorreko erakundeetako kide guztiengana hedatu ahal izango da (Euzko Alderdi Jeltzaleak Euzko Legebiltzarrean, Kongresuan eta Senatuan dituen legebiltzarkideak; EITB, aurrezki kutxak eta abar).
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE HISTORIKOEI DAGOKIENEZ, aipatu indizeari dagokionez, gauza bera esan daiteke Foru Aldundien eta Batzar Nagusien kasuan ere, EUSTATEk unean-unean ematen dituen datuen arabera.

Para los ámbitos en los que el índice de euskaldunes sea inferior al 40%:

- las candidaturas, organizaciones e instituciones tendrán, como mínimo, el portavoz euskaldun (al menos 2 miembros en el intervalo 30%-40%);
- las personas responsables (burukides, concejales, diputados...) de las áreas de cultura, juventud, euskera y educación, así como los portavoces, serán euskaldunes.

- EL GOBIERNO VASCO (*índice de referencia 50%*) contará, como mínimo, con un 50% de consejer@s euskaldunes y, también, con un 50% de cargos euskaldunes por departamento, extensible al conjunto de los miembros de instituciones del ámbito general (parlamentari@s de EAJ/PNV en Parlamento Vasco, Congreso y Senado; EITB, Cajas de Ahorro, etc.).
- EN EL CASO DE LOS TERRITORIOS HISTÓRICOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA, lo mismo cabe decir, desde la consideración del correspondiente índice, para las Diputaciones Forales y Juntas Generales, según los datos del EUSTAT en cada momento.

- NAFARROARI DAGOKIONEZ³, herrialdeko organoei dagokien indizea %16.34 da, Nafarroako Estatistika Erakundeak ematen dituen datuei kasu eginda.
- IPARRALDEARI (lurrealde osoari) dagokion indizea %30.2 da. Erroldatik ateratako daturik ez dugunez, eskuera dugun erreferentzia bakarra Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa da; inkesta horretatik ondoko indize hauek atera ditugu:

⇒ BAM (Baiona-Angelu-Miarritze):	%13.0
⇒ Lapurdiko barnealdea:	%45.7
⇒ Nafarroa Beherea:	%72.6
⇒ Zuberoa	%62.0
- Uri mailako organo eta erakundeentzat, irizpide bera erabiliko da, hala Araban, nola Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, betiere, EUSTATEk emaniko datuak erabiliko dira kontuan, eta Nafarroako Estatistika Erakundeak emanikoak hartuko dira kontuan (Ikus Eranskina).
- EGri dagokionez, EGIk hartzen duen adin-taldean tartean batez beste, oro har, baino askozaz ere euskaldun gehiago dagoenez, euskaldunak izango dira gazteen erakundeak hautagai-zerrendak osatzen dituzten pertsona eta hautetsi guztiak.

- EN EL CASO DE NAFARROA⁴, el índice correspondiente a los órganos territoriales es del 16.34%, según los datos del Instituto Navarro de Estadística.
- EN IPARRALDE contamos con un índice, el territorial, de 30.2%. Al no disponer de datos derivados del padrón, la única referencia disponible es la Encuesta Sociolingüística de Euskal Herria, de la que se pueden extraer los índices que siguen:

⇒ BAM (Baiona-Angelu-Miarritze):	13.0%
⇒ Lapurdiko barnealdea:	45.7%
⇒ Nafarroa Beherea:	72.6%
⇒ Zuberoa:	62.0%
- Para los órganos e instituciones de ámbito municipal, se seguirá el mismo criterio general tanto en Araba como en Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa de acuerdo, en todos los casos, con los datos aportados por el EUSTAT y por el Instituto Navarro de Estadística (documento Anexo).
- En relación con EGI, debido a que el número de euskaldunes del tramo de edad que abarca es muy superior a la media, serán euskaldunes todas las candidaturas y personas electas de la organización juvenil.

³ Udal mailako erreferentziak eranskinean azaltzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan baino xehetasun gutxiago izan arren.

⁴ Las referencias de nivel municipal, aunque con menor detalle que en el caso de la Comunidad Autónoma de Euskadi, figuran en el Anexo.

PLANA BETETZETIK SALBUETSITA DAUDENAK.-

Gure hizkuntzak historian zehar jasan izan dituen eraso latzak eta erasook eragin dituzten ondorio konponezinak kontuan hartuta, Plan honetan azaltzen diren eskakizunak betetzetik salbuetsita egongo dira honako **Plan hau onesten den egunean 45 urte edo gehiago** beteta dauzkaten alderdikideak.

Adinaren salbuespena ezin izango dute jo, honako hauek:

- a) Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria, Nafarroako Foru Gobernuko presidentea, Eusko Legebiltzarraren lehendakaria, Nafarroako Parlamentuko presidentea, diputatu nagusiak, Batzar Nagusien lehendakariak eta hiriburuetako alkateak.
- b) Gobernuen, ganbera legegileen eta hiriburuetako alkatetzetako bozeramaileak.
- c) EITBko zuzendari nagusia eta Arartekoa
- d) EBBren lehendakaria eta idazkaria, bost herrialde buru batzarren lehendakariak, eta Aberri Batzarraren Mahaiko lehendakaria zein lehendakariordeak, Aberri Batzarreko lurraldeetako bozeramaileak, Aberri Epaimahaiaren lehendakaria, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordearen lehendakaria.

EXENCIÓN DEL CUMPLIMIENTO DEL PLAN.-

Considerando los ataques sistemáticos sufridos por nuestra lengua a lo largo de la historia y sus irreparables consecuencias, quedarán exentas de cumplimiento de las exigencias de este plan las personas afiliadas que tengan **45 o más años en la fecha de aprobación del presente Plan.**

No se podrán acoger a la exención por edad, los siguientes:

- a) Lehendakari del Gobierno Vasco, presidente del Gobierno Foral de Nafarroa, presidente de Parlamento Vasco, presidente del Parlamento de Nafarroa, diputados generales, presidentes de Juntas Generales y alcaldes de capitales.
- b) Portavoces de gobiernos, de cámaras legislativas, y de alcaldías de capitales.
- c) Director general de EITB y Ararteko.
- d) Presidente e idazkari del EBB y presidentes de las cinco ejecutivas territoriales; presidente y vicepresidentes de la Mesa de la Asamblea Nacional; presidentes del Tribunal Nacional y de la Comisión Nacional de Garantías y Control.

⇒ **EUSKARAREN ERABILERA BARNE ANTOLAKETAREN BARRUAN.-**

1. Alderdikideek, organoek eta, oro har, erakundeek, euskara erabiliko dute, eta ez dute beren burua gaztelania edo frantsesa erabiltzera behartuta ikusi behar. Kasu bakoitzean, organo eskudunak bideratuko ditu eskubide hori bermatzeko behar diren baliabideak.
2. Alderdiaren ingurune eta erakunde elebidunek gehienbat euskaraz egingo dituzte beren funtzioak.
3. Alderdikide edo pertsona afiliatu guztiak euskaraz arituko dira, ahal duten neurrian, bai eta, bereziki, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan honetako eginbeharrak bete behar dituztenak euskaraz arituko dira, hizkuntza hori erabiltzeko baldintzak gertatzen diren kasu guztietan: idatzizko komunikazioak egiten direnean, beste euskaldun batzuekiko ahozko harremanetan, interpretazioko zerbitzua duten bilera edo batzarretan eta abar.
4. Euskara izango da %70etik gorako indizea duten organo eta erakundeen jardunerako hizkuntza, eta bai EGI gazte-erakundearen organo guztiena ere.
5. Arau orokor gisa, Euzko Alderdi Jeltzaleren organoek ateratzen duten dokumentazioa bi hizkuntzatan idatzita egongo da (euskaraz/gaztelaniaz; euskaraz/frantsesez),

⇒ **USO DEL EUSKERA DENTRO DE LA ORGANIZACIÓN INTERNA.-**

1. La afiliación, los órganos y las organizaciones en general, utilizarán el euskera sin que se vean obligadas a utilizar el castellano o el francés. Será el órgano competente en cada caso, el que disponga de los recursos necesarios para garantizar este derecho.
2. Los entornos y organizaciones bilingües del Partido desempeñarán sus funciones primordialmente en euskera.
3. Todas las personas afiliadas, en la medida en que puedan, y, especialmente, aquellas obligadas a cumplir los requisitos establecidos en este Plan de Normalización del Uso del Euskera utilizarán esta lengua, siempre que concurren las condiciones para ello, en cualquier relación escrita, en sus relaciones orales con otros euskaldunes, en reuniones o asambleas dotadas de servicio de intérprete, etc.
4. La lengua de funcionamiento de los órganos y de las organizaciones cuyo índice sea superior al 70%, y de todos los órganos de la organización juvenil EGI, será el euskera.
5. La documentación emitida por los órganos de EAJ-PNV con carácter general estará redactada en dos lenguas (euskera/castellano; euskera/francés), y la

eta unitate, organo edo erakunde elebidun bati bidali beharreko dokumentazioa euskara hutsean idatziko da.

6. Jendearenganako ahozko arreta, hasiera batean, euskaraz egingo da, eta ondoren pertsona interesatuak aukeratzen duen hizkuntzan jarraituko da. Jendearenganako arreta gisa, besteak beste, ondoko zerbitzu hauek hartuko dira:
 - telefonoa (telefonogunea, idazkaritzak eta komunikabideak);
 - sarrera-kontrola;
 - bisitaldi gidatuak;
 - kafetegi eta jatetxe zerbitzua.
7. Euzko Alderdi Jeltzalearen egoitzetako hizkuntza-paisaia euskaraz egongo da.
8. Zerbitzua sortuko da, banakako ikasketarako materiala mailegatzeko. Era berean, materialak sortuko dira euskarri informatikoan, eta EAJ-PNVren eremu guztietan zabalduko dira.
9. Euskararen erabilera bermatuko da, EAJ-PNVren langileak kontratatzean, bai eta kontratazioak egitean Alderditik kanpoko enpresekin.
10. Euskara Zerbitzu Teknikoak, plan honetan sortu baita, aholku zerbitzuak eskainiko ditu, euskararen jakitearen eretzean.

emitida a la atención de una unidad/órgano u organización bilingüe estará redactada sólo en euskera.

6. La atención oral al público se realizará inicialmente en euskera, y posteriormente se continuará en la lengua de elección de la persona interesada. Se consideran atención al público, entre otros, los siguientes servicios:
 - teléfono (centralita, secretarías y medios de comunicación);
 - control de acceso;
 - visitas guiadas;
 - servicio de cafetería y restaurante.
7. El paisaje lingüístico de las sedes de EAJ-PNV se hallará en euskera.
8. Se creará un servicio de préstamo de material de aprendizaje individual. Así mismo, se crearán materiales en soporte informático y divulgación en todos los ámbitos de EAJ-PNV.
9. Se garantizará el uso del euskara a la hora de contratar al personal de EAJ-PNV, así como al realizar las contrataciones con empresas ajenas al Partido.
10. El Servicio Técnico de Euskara, creado por el presente plan, ofrecerá sus servicios de asesoría en lo referente al conocimiento del euskara.

⇒ **EUSKARAREN ERABILERA ORGANO PUBLIKOETAN.-**

1. Elebidunak diren erakunde, organo edo unitateetako buruek euskaraz jardungo dute beren lanetan, eta euskara erabiltzea bultzatuko dute.
2. Euzko Alderdi Jeltzalearen kargudun publikoak euskaraz arituko dira beren jendaurreko agerraldi guztietan, prentsaurrekoetan eta abar.

⇒ **EUSKARAREKIKO JARRERA.-**

1. Alderdikideak eta Alderdiko organoak eta erakundeak euskararen erabilera lehenestea gauzatzen ahaleginduko dira.
2. Euzko Alderdi Jeltzalearen buru batzarrek gure alderdikideek euskararen erabileraren alorrean izan beharreko sentsibilizazio eta konpromiso aktiboa bultzatuko dute, eta, bereziki, alderdikideok udal erakundeen ekintza positiboak burutzeko egitarauetan parte hartzea sustatuko dute.
3. EAJ-PNVren bozeramaileek eta Alderdiaren ordezkariak duten erakundeetakoek emango diote euskarari balio erantsi berezia, eurek jendaurrean egiten dituzten adierazpen eta agerpenetan.

⇒ **USO DEL EUSKERA EN LOS ÓRGANOS PÚBLICOS.-**

1. Las personas al frente de instituciones, órganos o unidades bilingües desarrollarán su labor en euskera e impulsarán su uso.
2. Los cargos públicos euskaldunes de EAJ-PNV utilizarán el euskera en todas sus comparecencias públicas, ante los medios de comunicación, etc.

⇒ **ACTITUD HACIA EL EUSKERA.-**

1. La afiliación, los órganos y las organizaciones del Partido colaborarán para que sea posible el uso prioritario del euskera.
2. Las ejecutivas de EAJ-PNV impulsarán la sensibilización y el compromiso activo de nuestra afiliación para con el uso del euskera, y especialmente su participación en las iniciativas y en los programas de acción positiva de las organizaciones municipales.
3. Los portavoces de EAJ-PNV y los de aquellas instituciones en las que el Partido esté representado darán al euskera un valor añadido propio en sus declaraciones y manifestaciones públicas.

VI.- BALIABIDEAK

Plana onesten denetik aurrera zenbatu beharreko hiru hileko epearen barruan, EBBk, gainerako herrialde buru batzarrekin batera, Euzko Alderdi Jeltzalearen **Euskara Zerbitzu Teknikoa** abiaraziko du, eta berau EBBren Idazkaritzaren esanetara egongo da; zerbitzu horrek ondoko funtzio hauek beteko ditu: telefono edo intranet bidezko kontsultei jaramon egitea, itzulpenei edo hizkuntzari dagozkion ikastaroei edota beste gai interesgarri batzuei buruzko argibideak edo aholkularitza teknikoak ematea, hizkuntza arloko elkartruckerako jardunaldiak antolatzen laguntzea eta abar.

Halaber, Zerbitzu horrek honako plan honen helburu eta eskakizun zehatzekin loturik dauden pertsonen euskara ikas dezaten behar diren irakaskuntzako baliabideak eta bitarteko teknikoak hornituko ditu.

VII.- JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

➤ ADIERAZKARIAK.-

Adierazkarien sistema erraz eta eraginkorra ezarriko da, jarraian azaltzen dena bezalakoa:

VI.- RECURSOS

En el plazo de tres meses desde la aprobación del Plan, el EBB, en colaboración con los Consejos Territoriales, pondrá en marcha **el Servicio Técnico de Euskera** de EAJ-PNV, el cual dependerá de la Secretaría del EBB, para atender consultas, vía telefónica y vía intranet, facilitar información o asesoría técnica sobre traducciones o cursos u otras cuestiones de interés en relación con la lengua, colaborar en la organización de intercambios lingüísticos, etc.

Asimismo, este Servicio proveerá los recursos didácticos y técnicos necesarios para el aprendizaje del euskera de aquellas personas vinculadas a los objetivos y exigencias específicas del presente plan.

VII.- SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN

➤ INDICADORES.-

Se establecerá un sistema de indicadores, sencillo y eficaz, como el siguiente:

- Alderdikide euskaldunen kopurua, organo eta erakunde elebidunen kopurua.
- Gertatzen diren ereduazko idazkien kopurua.
- Euzko Alderdi Jeltzalearen erregistroetan elebitan edo euskara hutsean jasotzen/igortzen diren idazkien kopurua.
- Ikastaroetako partaideen kopurua.
- Egiten diren kontsulten / zuzenketen kopurua.
- Eskatzen diren interpretazio-zerbitzuen kopurua.
- Euskara sustatzeko antolatzen diren bidaien edo bestelako jardueren kopurua.
- Hizkuntza-elkartrukeen kopurua.

➤ EBALUAZIOA.-

Euzko Alderdi Jeltzaleak ebaluazioa egingo du urtero, egoki diren zurbideen bitartez. Ebaluazio horren emaitza orokorrak urtero aurkeztuko ditu EBBk Aberri Batzarrean.

VIII.- XEDAPEN IRAGANKORRA

Honako Plan honen indarraldiko lehenengo lau urteetan, Aberri Batzarrak, kasu bakoitzean dagokion Batzarrak eskatuz gero, euskararen jakitea egiaztatzeko eskakizuna geroratu ahal izango du,

- N^o de alderdikides euskaldunes, n^o de órganos y organizaciones bilingües.
- N^o de escritos-modelo elaborados.
- N^o de escritos recibidos/emitados en bilingüe o en euskera en los registros de EAJ-PNV.
- N^o de participantes en cursos.
- N^o de consultas atendidas, correcciones realizadas.
- N^o de servicios de intérprete demandados.
- N^o de viajes y otras actividades de promoción del euskera organizados.
- N^o de intercambios lingüísticos

➤ EVALUACIÓN.-

EAJ-PNV realizará una evaluación anual, a través de los descargos correspondientes. El resultado global de tal evaluación será presentado anualmente por el EBB ante la Asamblea Nacional.

VIII.- DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Durante los primeros 4 años de vigencia del presente Plan, la Asamblea Nacional podrá, a petición de la Asamblea competente en cada caso, posponer excepcionalmente y de manera

salbuespenez eta banaka; horretarako baldintza izango da BANAKO PRESTAKUNTZA-PLANA abian jartzea, eta hala denean, prestakuntza-plan hori burutuko duen pertsona horrek, aurretiaz jarritako denbora batean, plan hori betetzeko konpromiso formala hartu beharko du.

Kasu horietan, EBBren Euskara Zerbitzu Teknikoak txostena txosten bat egin beharko du derrigor, erabakigarria ez dena, eta hori egin ondoren, Aberri Berme eta Zaingo Batzordeari dagokio prestakuntza-plan bereziari lotzen zaion pertsona benetan euskalduntzea, eta, horrekin batera, Euzko Alderdi Jeltzalearen Hizkuntza Normalizaziorako Plana betetzea.

AZKEN GOGOETA

Eskerrak ematen dizkiogu gure aurreko belaunaldikoei, euskararen alde egin duten apustuagatik, bai familiaren magalean irakasteagatik, bai berek jakin ez arren hezkuntza sistemaren bitartez hizkuntza ikasteko bideak emateagatik. Orain geuri dagokigu euskararen erabilera gero eta gehiago zabal dadin ahalbidetzea eta hurrengo belaunaldiak gure hizkuntza eskura dezan bermatzea.

Badakigu, jakin, euskara dena gure aberriaren nortasunaren ezaugarririk garrantzikoena eta argiena. Horrek inola ere ez du esan nahi gaztelania eta frantsesa kanpokoak zaizkigunik; gainera,

individualizada la exigencia de acreditación de conocimiento del euskera, a condición de la puesta en marcha de un PLAN DE FORMACIÓN INDIVIDUALIZADO a cuyo cumplimiento en un tiempo tasado deberá comprometerse formalmente, en su caso, la persona candidata.

Corresponde a la Comisión Nacional de Garantías y Control certificar en estos casos, previo informe del Servicio Técnico de Euskera del EBB, que será preceptivo pero no vinculante, la euskaldunización efectiva de la persona acogida a un plan de formación específico y, con ello, el cumplimiento del Plan de Normalización Lingüística de EAJ-PNV.

REFLEXIÓN FINAL

Agradecemos a la generación precedente su apuesta por el euskera, bien porque nos lo transmitiera en la familia, o bien porque posibilitara que lo aprendiéramos en el sistema educativo cuando ellos no lo sabían. Ahora nos corresponde a nosotros apostar por la extensión progresiva de su uso y garantizar su transmisión a la siguiente generación.

Tenemos presente que el euskera es el elemento conformador más importante y el más claro exponente de la identidad nacional vasca. Ello no supone, en absoluto, que el castellano y el francés

hizkuntza horiek milaka eta milaka euskaldunen eta milaka alderdikideren ama-hizkuntzak dira. Baina euskara da gure nortasunaren eraikuntzari balio egituratzaille esanguratsua ematen diona. Gure aberri nortasuna izango da –egoerei egokitzeko eta bertan irauteko gaitasuna eta ahalmena direla bide– neurririk gabe hazten ari den kultura-berdinzalekeria bateratzailetik babestuko gaituena. Kultura-aniztasunak eta, azken batean, bizitza eta elkarbizitzarako estilo ezberdinek bizirik iraungo dute aberri nortasunak bizirik irauten duten heinean.

Horregatik guztiagatik, euskaldun guztion ondarea den aberri hizkuntza bizirik izateko eta arlo guztietan erabilgarri edukitzeko egin dugun apustua sendoki eguneratu eta areagotu behar dugu. Izan ere, hori da gure erronka nagusia Euskadiren aberri eraikuntzan konpromiso irmoa hartu duen Alderdi honen kide garen aldetik.

nos sean ajenos; máxime, cuanto se trata, en ambos casos, de la lengua materna de miles y miles de vascos y vascas y de miles de alderdikides. Pero el euskera es la lengua que aporta valor significativo a la construcción identitaria. Será nuestra identidad nacional –con toda su capacidad de adaptación y de permanencia– la que nos preserve del creciente igualitarismo cultural uniformizador que avanza a pasos agigantados. La diversidad cultural y, en definitiva, los diferentes estilos de vida y de convivencia sobrevivirán en la medida en que perduren las identidades nacionales.

Por todo ello, es nuestra obligación actualizar e intensificar nuestra apuesta por mantener viva y plenamente funcional la lengua nacional que nos pertenece a todas las vascas y a todos los vascos. Es nuestro desafío más importante como miembros de un Partido comprometido con la construcción nacional de Euskadi.

ERANSKINA

**ARABA, BIZKAIA, GIPIZKOA eta
NAFARROAko
BIZTANLE-KOPURUA EUSKARAREN
JAKITEAREN ARABERA**

(2001eko ZENTSUA)

Iturriak:
Euskal Estatistika Erakundea-EUSTAT
Nafarroako Biztanleriaren Estatistika

ANEXO

**RELACIÓN CUANTITATIVA DE LA POBLACIÓN
de
ARABA, BIZKAIA, GIPIZKOA y NAFARROA,
SEGÚN SU CONOCIMIENTO DEL EUSKERA**

(CENSO DE 2001)

Fuentes:
Instituto Vasco de Estadística-EUSTAT
Estadística de Población de Navarra

Excel Artxiboak: [1. ERANSKINA – EAEIndizea2001]
[2. ERANSKINA – NafarroaIndizea2001]